



Gudari Eguna

Gudari eguna, gudariak eta aberria gogoratzeko eguna.

Txikik esan bezala, irailaren 27 hartan ez baitzuten bera epaitu, herri osoa baizik.

Eta bera hilda, amak ez zuen seme bat galduko, euskal seme-alaba ugari irabazi baino.

Gorputz ubelduen gainetik iraungo baitu gure elkartasunak.

Doinu horiekin bat gatoz...

Zer da ba aberria

borrokari lotua dagoen herria ez bada?

Herri zapalduaren erresistentzia ez bada?

Zer dira gudariak, aberriagatik bizia eman duten borrokalariak ez badira?

Gudarien heriotzaren biharamunean, negarrez datozkigunean, esango diegu: gure aberria ez da inoiz lurpean egongo, askatasun haizearen kulunkan baitirau.

Zuek zarete gure aberria.

kimua

www.kimua.eus